

Oxigeno bila

TXILLARDEGI



ORAIN dela urte mordoxxa bat. «Larresororen» atzean izkutatzen nintzelarik, arazo politikoak ez ziren puntuak ere ikutu ohi nituen tarteka.

Franco ginean geneukan (oraino luzerako, uste geneuzenez); baina amasa hartzea posible zen oraindik. Urteen poderioz agian, baina ez horregatik bakarrik, herri hori jasan erazten zaizkion jipoi dorpeak elkargainka etorriak, lotsatu bezala egiten gara beste ezertaz hitz egiterakoan. Oraingo kolpeak ikurrinariaren izenean emanak izateak badauka zer ikusirik, nik uste, tematzeko horren funtsean.

Orain, adibidez, Jaurilaritza «abertzalea» omen dugun mememot honetanxe, batera urratzen dituzte beren soinekoak hiru alderkiok, eta «frentismoa» madarikatzen dute ahobatez eta sumundurik: «Gu frentista? Otoi! Arren! Ezta inolaz ere!»... Baina gezurra diote; hirurok (hirurok, bai) «frente» ezagun bati eusten baitiote: *H.B.ren kontrako frenteari*: PPrekin, PSOErekin, UArekin, eta Moro Muza-rekin. *Frentista bai*, beraz: *Oso tara frentista dira hirurak*. Baina *etxekoak zapaltzeko*. «Demokraziazaren» izenean azken bolada honetan; anti-albanekierien atzekian oraintsu arte; «Pacto de Bayona-rean» ni gazte nintzenean...

«F.L.N.» sigla ez dugu guk asmatu. Nazio-zapalketari buelta emateko, hamaika lekutan sortu izan dira horrelakoak. Hemez ez: hemen oso «berri-zaleak» gara. Hemen frente bakarra, amore eman nahi ez duten *abertzaleen kontrakoak*. Bapo, mutilak!

Gaur, horregatik, Marte-tik heldu zaizkion foto harrigarriez idazteko asmoa nekaren; «Larresorok» egingo zukeen bezala. Nik bezala, zuek ere oxigenoa behar baituzue; Kafkak berak somatu ez zukeen lokamutsu honetatik ihes egiteko.

Barka, beraz. Hurrengo batez izango da.

«Trapuak» eta «Oihalak»

PIARRRES XARRITON



EZ DUTE menturaz ene hizno hau irakurriko ere Frantziako Alderdi Sozialisteko gure herritarrek. Nahiz badiren heien artean, gure Frantziar Maitia eta horrelako bat edo

beste, euskara izugarri ongi menderatzen dutenak, gehienek halere elebarkarreak dira, frantses hutsak, jakina. Dena den, frantses alderdi horretako bulegoak egin berri duen deklarazio bat dut hemen gogoetagai: Parisen Iparretarren kontra daramaten auzia dela-ta, egin digute omen deklarazio hori. Frantziako sozialistak —alderdia ala gobernu?— prest daude, Justiziak —nolako justiziak?— bere bidea egin orduko «Iparretarrek» solasak hasteko. Baldintza bakarra holetan, «menia» edo «tregua» bat onar dezaten euskaldunek.

Horiek oro ederk! Ez dugu hainitzek besterik eskatzen Iparaldean; beste eskualde askotan bezala naski; bakebiderako «menia» baitzpadako hori besterik. Baina hona nola zehazten diguten gure sozialistek delako «menia» hori: jakineraz diezagutela Iparretarrek ez dutela gehiago ez «bonbarik zartaraziko» ez «bidetako iragarkirik zikinduko».

Hori jaunak ez! Ez otoi nahas, pistolak eta zartagailuak darabiltzatenak alde batetik eta isatsa eta tindua eskuan dabilzatenak besterik. Frantsesek berek errana dute aspaldian ez direla sekulan nahasi behar «trapuak» eta «oihalak».

Ez nahi baduzue zinez, sozialista maiteak, zuek eta guk euskaldunek noizbait elgar adi dezagun, ez has bederen haste hastetik ideia guzien nahasten!



Harresiaren lekualdatzea

Zer da nazioarteko orden berri hori? Reza Pahlavi sha erori zen. Saddam Hussein matxinatutako guardia pretorianoa da. Gaur egun ez dago seguru egotetik Golkoko polizia bakar batekin ere. Israelek ere ezin du Palestinako *Intifada* kontrolatu. Kuwaiteko inbasioaren kostua ez da handia izan. Tropa amerikarrak, *gastuak ordainduta* irten dira kanpora, lehen aldiz. Golkoko Kooperaziorako Kontseiluak berak ere, toki horretan indar disuasorio iraunkorra jartzearen beharraz hitzegin du. Lortu dugu: Mendebaldeko *arriskua* desagertu da: Berlingo haresia Mediterraneoaraino eramandu dugu. Erabat zaindua dugu orain Hegoalde. Eta Europa *bere tokian*. Nork ekingo dio berriro gaur egun europar eta arabiarraren arteko elkarriketari?

RAFAEL VALENCIA / 1991-II-1

HEMEROTEKA

● EL MUNDO



GALLEGO & REY / DIARIO16 / 91-II-1

● Diario de Navarra

Borondate lasaigarria

Ardanzak, aurreko inbestidura diskurtsoetako gidoia aldatu egin behar izan zuen. 1.985 eta 1.987an, PNVA, jasandako zatiketaz errenka zegoen eta PSE-PSOEren muleta gainean apoiatuta; Orduan, Lendakari-rako hautagaiak bere indar guztia jarri zuen argitzeko, sozialistekiko akordio programatikoe-kin, bere partiduak ez zituela zertan helburu nazionalistak alde batera utzi behar. Atzo, horiei helduta, hiritarrei azaltzen

saiaitu zen bere Gobernuaren tin- du nazionalistak ez dituela eten- go gure herrian azken sei urteen eman diren aurrerapenak, alegia, sentsibilitate politiko eta kulturalen elkarbizitza eta ba- tasunari buruzkoak.

EDITORIALA / 1991-II-1

● EL PAIS

Goragalea

Saddam Hussein zonaldeko mafiaburu horietako bat bihurtu zen: bere boterea soberestendu eta egunen batean Padriñoaren erantzuna probokatuko duen aginpideak bereganatu ditu.

MANUEL VAZQUEZ MONTALBAN / 1991-II-1

ZUZENDARIARI

Bai, euskarak AEK behar du

Azpian sinatzen dugunok, **HABE** Euskaltegietaiko irak- leak izanik, helduen Alfabetazio-Euskalduntze lanetan dihardugun heinean, zera adierazi nahi diogu eritzi pu- blikoari:

— AEKri bi hamarkada luzetan zehar garatu duen eta gaur egun garatzen ari den lana aitortu behar zaiola era- kunde publiko zein herritar guztion aldetik.

— Euskararen presio sozial eta motibazioaren ahultze ga- rriak bizi ditugunean, inoiz baino beharrezkoagoa dela Euskararen aldeko herri mu- gimendu sendoa. Funtsezko ikusten dugula iniziatiba ins- tituzional eta sozialaren arte- ko elkarlana. Ondorioz, AEK herri erakundea beharrezko- tzat jotzen dugula etorkizu- nari begira.

— Instituzio eta herri mu- gimenduen artean ematen ari diren gatazka era egokian bi- dertzeko premia handia da- goela, bestela Euskara bera izango bait da galtzaile na- gusia.

— AEKri urteetan zehar garatu duen lana aitortzeko eta elkartasuna adierazteko

aukera egokia dela larunbat honetarako deiturik dagoen manifestaldian parte hartzea, eta horretara animatzen du- gula herritar oro.

HABE EUSKALTEGIETAKO 50 IRAKASLE

Kazetari bati

Ez EGUNKARIAN, baina beste kategoria batean idazten duen kazetari bati xuxentze tipi bat. Ez dizut nik behinere zuri erran, ez telefonoz ere, Etxeberri Dorrek idatzi zuela XVII. mendean «Abiazio-eko» liburua, «Nabigazio-eko» baizik.

PIARRRES XARRITON (BAIONA)

Gerra sekretua-sakratua?

Gerra dela eta normalean izkutuagoak geratzen diren gauza asko azalera iristen di- ra. Kasu honetan gerrak inoiz baino gehiago ikusarazi digu zein estuak geratzen diren gure demokraziak edo parti- zipazioa; gerra bera de- mokraziaren kontrakoa dela- ko, bere izaeran eta baita gerra egiteko erabakia herriatik fo-

ro urrutienetan (Washington, OTAN, EUO,...) hartzen di- relako. Horretaz gain infor- mazio eza arazo garrantzi- tsuenetarikoa bilakatu zaigu, guztiz lotsagarria eta salata beharrezkoa da gobernu- hartu duten bidea. Gudaren arazoi ilunak ez digute aipat- zen ez eta ere gudaren gora- beherak, emaitzak, hilo- tzak... Pelikula moduan aur- kezten digute bere hil-tresne- kerriaren goraitzak egiten.

Gerra ez dira inoiz piztu herriaren alde, pertsonal ardotxoak bait gara gerran ondorioak jasan egin behar ditugunok. Gure eskutan dago burugabekeria honi erantzutea eta agian geldia- raztea. Golkora joan daitez- ken desertzioa-intsumisioa egiten eta beste guztiok ahal dugun guztia egiten; intsumi- soei laguntza emanez, obje- zio fiskala egin ez edota simple- goa eta errezagok diren gau- za txikiak egin ez, gerraren kon- trako bizi-jokauer hartuz: ka- lean, tabeman, gure etxetan kartelxoak jarritz...

Gerra gizakiaren aurka kri- mena da, gerrari ezetza ema- tea degorritzko dugu.

PATXI AZPARREN DONOSTIAKO TALDE ANTIMILITARISTA (KEM)

PERTSONAIA



Juan Mari Bengoetxea

Leitzarra deitzen diagu baina hi haiz Ezkurren jaioa, pelotan ona bezain gizona gozoa ta serioa pelota mundun mendi gailurrik altuenera igoa hire boleak ta ezker gantxoak aurrelari iaioa Juan Mari bihotz barrun sentitzen diat hire arioa.

JOXE MIGEL ARGINARENA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE
Kontseilu Editorialeko Lehendakaria: JOAN MARI TORREALDAI
Kontseilari Ordezkaria: JOXE MIEL ZUMALABE
Gereentea: INMA GOMILA

Zuzendaria: PELO ZUBIRIA
Zuzendariordeak: NEREA AZURMENDI LUZIJEN ETXEZHARRIETA INAKI URIA
Publizitatea: KORNELIO ROTETA

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E Lege Goidialtu: SS 800/90

HELBIDEAK

Egoitza soziala eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1 / 20010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57
Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industriadela, 01-02 Pabilioak / 20160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93
Publizitatea: Loiola, 14-1.3 / 20005 Donostia / ☎ 42 69 96 / Faxa: 42 93 18
Araba: San Antonio, 20-1.ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73
Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13.esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎ 17 80 78 / Faxa: 17 80 77
Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1.eskuma. / 48001 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxa: 423 94 60
Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 2, Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11